

Klase eta jatorriaren araberako segregazioa.
Euskara.

Zenbait gogoeta

Amelia Barquín. Mondragon Unibertsitatea

Hasteko...

- Segregazioa da gure hezkuntza sistemaren ezaugarri bat: jatorria eta klase sozialaren araberrako segregazioak sistema zeharkatzen du.
- Dena dago esanda. Aspaldidanik. Behin eta berriro. Diagnostikoak, markoak, irizpideen eta neurrien zerrendak...
- Nor aritu da? Euskadiko egoerari buruz: Euskadiko Eskola Kontseilua, ISEI-IVEI, Hezkuntza Saileko planak ikasle etorkinen inguruan, Arartekoa, Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataforma (EEPAP), “Eskola Inklusiboa” Herri Ekimen Legegilea, alderdi politiko batzuk, sindikatu batzuk, hainbat eragile, hainbat ikerlari, Save the Children... Beste erakunde batzuk: Fundació Bofill, ELGEa...
- Segregazioaren ondorioak ere ezagunak dira.
- EAEn jatorriaren araberrako segregazioa diagnostikatuta dago gutxienez 2003tik Hezkuntza Sailaren dokumentuetan.

Hasteko...

- EAEn segregazio prozesuak ez dira eten azkeneko 20 urteotan. Aurrera jarraitzen dute.
- Fenomenoa naturalizatuta dago. Gero eta gutxiago?
- EAEn desnaturalizazioa eta gaia mapan jartzea aktibismotik dator. EEPAParen manifestua (2016-2) eta aktibismoa. “Eskola Inklusiboa” Herri Ekimen Legegilea (2018-11).
- Deserosotasuna sortu da. Deserosotasunean instalatuta gaude?
- Feminismoak esango lukeen bezala: nola jaitsi pribilegiotik?
- Justizia sozialaren kontua da. Mundu guztia ados dago segregazioa txarra dela, baina onura indibiduala jasotzen dutenak ze ahalegin ari dira egiten segregazioa murrizteko?

Segregazioaren ondorioak ezagunak dira

- Hezkuntza-desberdintasuna areagotzen du, “ikaskide-efektua” dela-eta.
- Zentro heterogeneoetan profil altukoek galtzen dutena ia hutsala da, eta profil baxukoek irabaz dezaketena esanguratsua da.
- Sistema osoaren emaitzei kalte egiten die. Eragin negatiboa positiboa baino handiagoa da.
- Ikastetxeen artean ISEK desberdintasuna dagoenean, emaitza akademikoko puntuazio-aldeak ISEKari egotz dakizkioke.
- Errendimenduan eragin handiagoa du familien maila sozioekonomikoaren araberrako bereizketak jatorriaren araberrako bereizketak baino.

Segregazioaren ondorioak ezagunak dira

- Ikastetxeetako baliabide materialen eta giza baliabideen kudeaketa eraginkorra zailtzen du.
- Konpentsazio-politikeetatik eratorritako kostuak handiak dira (pertsonek, ekipamenduak, zerbitzuak...). Merkeagoa da bereizkeria murriztea ondorioak zuzentzea baino.
- Irakasleen lan-baldintzetan desberdintasuna eragiten du.
- Eskola aukeratzeko prozesuak eta eskariaren kudeaketa tenkatzen ditu.
- Kulturarteko harremana eta horrek sortzen dituen ikaskuntzak ezabatzen ditu.

Nola heldu gara honaino? Zenbait diskurtso maila guztietan

- Izenekin bueltaka ibiltzea (ghettoa, etorkina, kontzentrazioa, segregazioa...)
- Itsutasuna / negazionismoa
- "Ez da horrenbesterako", "hurrengo belaunaldietan hobeto" ...
- "Zuek ere bai", "beste sarearen ikastetxe askotan", "badaude herri batzuk non" ...
- Beste "segregazio" batzuen artean diluitzea (generoa, erlijioa...)
- Segregazio erresidentzialari erantzukizuna egozte
- Familia etorkinen nahia edo joerari egozte. Haien "aukeratzeko askatasunaren" alderdi bat
- Administrazioaren arlo batzuei ardura egozte (eskolatze batzordetik ez direla etorkinik bidaltzen)
- Gaiari heltzeko garaia etorkizunerako uztea (Lege Berria datorrenerako, adibidez)
- Papergintzan aritzea: txostenak, diagnostikoak, itunak, akordioak...

*Zer gertatatu da azken bi hamarkadetan? Denbora irabaztea izan da? Denbora galtzea? Geure buruari tranpa egitea? Honakoa bai: gaiari ez heltzea, denbora uzten pasatzea...

Oraindik zerbait

- Deseatuak izan ez diren ikasleez ari gara.
- Erantzuna ematea erronka edukatiboa, soziala, linguistikoa eta kulturala da.
- Ikastetxe ugari ari dira erronkei erantzuten.
- Erronka edukatiboari, sozialari, kulturalari, linguistikoari erantzuten dieten ikastetxeek prestigio galera pairatzen dute. Estigmatizatuta daude.
- Aldaketa bat gertatzen ari da? Agertokia aldatzen ari da? Jaiotze tasa jaitsieraren eta inmigrazioaren zenbakien ondorioz? Emaidza akademikoekin kezkaen ondorioz? Euskararekiko kezkaen ondorioz?

Administrazioaren esku-hartzeari buruz

- Bi dimentsio izan ahal ditu:
 - Ikastetxe segregatuetan baliabideak jartzea (ikuspegi konpentsatzailea*)
 - Desegregazioa bultzatzea (ikuspegi prebentiboa* edo eraldatzailea)
- Administrazioa lehenengoan aritu da nagusiki. Bigarrenak ukituko luke sistemaren izaera duala.
- Unea da erabakitzeko ea bigarrenari helduko diogun gizarte moduan, herri moduan. Eta noraino. Erabakiak ondorio garrantzitsuak izan ditu datozen hamarkadetan

*Ferrer & Gortazar 2021

Ikasle etorkinak eskolatzeko programak (Hezkuntza Saila)

- *Ikasle etorkinak artatzeko programa. 2003-2006. [Hemen](#).*
- *Kulturartekotasunerako eta etorri berrien inklusiorako programa. 2007-2010. [Hemen](#).*
- *2012-2015eko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko Plana. [Hemen](#).*
- *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana. [Hemen](#).**
- *Luzapena 2020-2021.*

*Proposatutako neurriak ez dira zuzentzen segregazioa bultzatzera. Azken dokumentuan, ordea, bi helburu hauek jasotzen dira (planaren ebaluazioa ez da plazaratu):

- 2.1. HELBURUA Euskal hezkuntza-sistemara ohiko epeetatik at sartzeko eskolatzeko irizpideak berrikusi, argitu eta bateratzea.
- 2.5. HELBURUA Gardentasuna hobetzea eta eskaintza orekatzea, ikasleak onartzeko ohiko prozesuan.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

IKASLE ETORKINAK ARTATZEKO PROGRAMA

**(2003ko abenduaren 9ko Inmigrazioaren Euskal
Planaren barnean)**

Dokumentu honetan
(2003an) segregazioaren
inguruko zenbaki argiak
plazaratu ziren .

2.2. Ikasleen egoera eta banaketa

Lurraldeka eta eskola-sareka ere desberdin banatzen dira ikasle etorkinak. Hona hemen datuak:

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

4

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%	Etorkinak	%
Publikoa	1.454	83.13	3.117	78.27	1.349	64.48	5.920	75.67
Itunpekoa	295	16.86	865	21.72	743	35.51	1.903	24.32
Guztira	1.749	100	3.982	100	2.092	100	7.823	100
%	22.35		50.90		26.74		100	

EAEko ikasle etorkinen erdia baino gehiago (% 51) Bizkaian eskolatzen da, % 27 Gipuzkoan eta % 22 Araban.


Sare publikoak ikasle etorkinen % 75 eskolatzen du (guztizko kopuruaren bi heren), nahiz eta berez EAEko ikasle guztien % 47,5 baino eskolatu ez hark. Portzentaje hori hezkuntza-etapa guztietan mantentzen da oinarrian.

Lurraldeka hartuta, Araban dago desorekarik handiena: % 83 sare publikoan eta % 17 itunpekoan. Bizkaian desoreka hori txikiagoa da: % 78 sare publikoan, eta % 22 itunpekoan; eta Gipuzkoan, berriz, oreka handiagoa dago: % 64,5 sare publikoan, eta % 35,5 itunpekoan. Datu horiek bildu dira honako grafiko honetan (HHIko datuak barne hartuta):

EAEko ikasle etorkinen erdia baino gehiago (% 51) Bizkaian eskolatzen da, % 27 Gipuzkoan eta % 22 Araban.

Sare publikoak ikasle etorkinen % 75 eskolatzen du (gutzizko kopuruaren bi heren), nahiz eta berez EAEko ikasle guztien % 47,5 baino eskolatu ez hark. Portzentaje hori hezkuntza-etapa guztietan mantentzen da oinarrian.

Lurraldeka hartuta, Araban dago desorekarik handiena: % 83 sare publikoan eta % 17 itunpekoan. Bizkaian desoreka hori txikiagoa da: % 78 sare publikoan, eta % 22 itunpekoan; eta Gipuzkoan, berriz, oreka handiagoa dago: % 64,5 sare publikoan, eta % 35,5 itunpekoan. Datu horiek bildu dira honako grafiko honetan (HHIko datuak barne hartuta):



3. Oinarrizko printzipioak


Ikasle etorkinak eskolatzea erronka bikoitza ari da izaten euskal hezkuntza-sistemarentzat, eta, ondorioz, eskolentzat: hezkuntza kultura anitzeko testuinguru bati egokitzea, eta ikasle horientzako berriazko hezkuntza-beharrei erantzuna ematea.



KULTURARTEKOTASUNERAKO ETA IKASLE ETORRI BERRIEN INKLUSIORAKO PROGRAMA

Beste prozesu bat bai kudeatu da gure gizartean: ikasle etorkinak bideratu dira A publikotik D publikora, dokumentu honetan islatzen denez.

HIZKUNTZ EREDUEN ALDERATZEA AZKEN LAU IKASTURTEETAN



Urteetan zehar hainbat dokumentutan agertu dira segregazioaren zenbakiak. EEKako txostenetan, adibidez, non batzuetan zenbakiak orekatzeko neurriak ere proposatu diren. Aipatuen artean, besteak beste, Eskolatze Batzordearen jarduera (matrikula bizia esleitzearekin lotuta) aztertzea dago, ikasle etorkinen eskola aldaketa aztertzea, ISEK eta indikadore linguistiko baxuko ikastetxeetan arreta eta baliabide gehiago jartzea (humanoak eta materialak)...




Euskadiko Eskola Kontseilua

Euskadiko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena, 2006-2008

Osoko Bilkurak onartutako Txostena, 2010/01/28an

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen ehunekoa, sareen eta lurraldeen arabera. 2008ko ekaina.




Ikasle etorkinen kopuru handia duten zentroak aztertuz ondorioztatu da gehienak publikoak direla, aurreko datuarekiko koherentziari eutsiz; nolana ere, badira ikasle etorkinak ikasle guztien %40 baino gehiago diren ikastetxe kontzertatuak ere.

Ikasle etorkinak eskolatzen dituzten zentroak, ikasle horiek ikastetxearen guztizkoan duten ehunekoaren eta hezkuntza-sareen arabera. Euskadi, 2008ko iraila.

<i>Eskolatutako biztanleria etorkinaren ehunekoa</i>	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Ikastetxe pribatu-konzertatuak</i>	
< %5	198	%44	142	%63
%5-10	96	%21	39	%17
%10-20	93	%21	27	%12
%20-40	40	%9	11	%5
> %40	20	%4	5	%2
Ikastetxe guztiak	447	%100	224	%100

Patronal desberdinen arteko aldeak oso nabarmenak dira; izan ere, Kristau Eskolak Euskadiko batez bestekoa du (%7), eta, aldiz, Partaidek nahiz gainerako patronalek %2 baino apur bat gehiago dute.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen ehunekoa, sareen eta patronalen arabera. 2006-2008 aldiko bilakaera




Instituzioetan gaiarekiko kezka puntualki agertu da urte askotan zehar. Hiru adibide:

- 2007an Hezkuntza sailburua zen Tontxu Camposek komunikabideetan adierazi zuen orduz geroztik ez zela egongo %30 immigrante baino gehiago inongo eskolatan. Praktikan ez zen erabakia gauzatu.
- 2007ko martxoan Arartekoak Hezkuntza Sailari eskatu zion kopuru zehatzak ezartzeko ikasle immigranteak modu orekatuan banatzeko, ghettoen eraketa ekiditeko hain zuzen ere. Ez zen gauzatu. (Arartekoaren txosten ugaritan agertu da segregazioa arazo moduan horrez geroztik).
- Euskadiko Parlamentuak 2009ko azaroaren 12an proposamen bat onartu nuen, zeinak Hezkuntza Sailari eskatzen baitzion, besteak beste, gela bakoitzeko ikasle immigranteen kopurua %25koa baino gehiagokoa ez izatea, eta epez kanpo matrikulatu ahal ziren ikasleen kopurua gela bakoitzeko %10ekoa baino gehiagokoa ez izatea. Ez zen gauzatu.


EUSKADIKO HEZKUNTZA SISTEMAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA.

2017-18/2018-19


EEKko azken txostenaren
datuak segregazioaren
inguruan:



1.5.4 Atzerriko ikasleak lurraldeen eta sareen arabera. 2018-19




1.5.5 Atzerriko ikasleak lurraldeen arabera. 2018-19




1.5.6. Atzerriko ikasleen bilakaera etapen eta sareen arabera 2016tik 2019ra(HBrik gabe)

		HH.	LH	DBH	Batx.	EMLH	GMLH	OLH	Guztira	Ikasle guztiak	% Red
2016-17	Publikoa	5.434	6.669	2.994	938	975	732	332	18.074	187.981	9,6%
	Pribatua	1.451	2.342	2.424	521	469	419	856	8.482	179.564	4,7%
	GUZTIRA	6.885	9.011	5.418	1.459	1.444	1.151	1.188	26.556	367.545	7,2%
2017-18	Publikoa	5.505	7.225	2.929	946	1.088	885	359	18.937	189.663	10,0%
	Pribatua	1.579	2.500	2.445	509	607	535	891	9.066	184.240	4,9%
	GUZTIRA	7.084	9.725	5.374	1.455	1.695	1.420	1.250	28.003	373.903	7,5%
2018-19	Publikoa	5.864	7.649	3.043	779	946	882	319	19.482	189.680	10,3
	Pribatua	1.817	2.788	2.708	465	522	496	809	9.605	184.821	5,2
	GUZTIRA	7.681	10.437	5.751	1.244	1.468	1.378	1.128	29.087	374.501	7,8

1.5.7 Atzerriko ikasleen ehunekoa , etapan eta sareen arabera. 2018-19



1.5.8 Atzerriko ikasleen banaketa nazionalitateen arabera. 2018-19



1.6. IKASLE BEKADUNAK

2018-19 ikasturtean, ikasleen% 36,2k (3-19) eskola-materialaren beka jaso zuen, eta 2-16 urteko ikasleen% 19,5ek jangelako beka jaso zuen. Baldintzak, errenta-mailak bezala, desberdinak dira beka-mota bakoitzerako, eta murriztaileagoak jangela-beketarako.


1.6. 1.- Bekadunen ehunekoa, moten, lurraldeen eta sareen arabera

		Eskola-materialaren bekadunak			Jangelako bekadunak		
		2016-17	2017-18	2018-19	2016-17	2017-18	2018-19
Araba	Pub.	46,6	47,3	48,0	28,9	28,8	27,6
	Prib.	27,2	27,7	27,2	6,4	6,4	5,6
Bizkaia	Pub.	46,3	46,8	46,4	33,5	32,9	31,2
	Prib.	33,8	29,2	28,6	14,0	13,5	12,8
Gipuzkoa	Pub.	38,5	39,2	39,0	24,6	24,6	24,0
	Prib.	27,2	27,7	27,8	9,9	9,8	9,8
Euskadi	Pub.	43,7	44,6	44,1	29,6	29,3	28,1
	Prib.	27,7	28,7	28,1	11,6	11,3	10,8
Guztira		35,8	36,8	36,2	20,7	20,4	19,5
		123.319	125.400	123.893	60.222	59.661	56.771


Eskola-materialaren kasuan, bekadunen kopuruak bere horretan jarraitzen du, baina jantokiko bekadunen kopuruak behera egin du. Sareen arabera, ehuneko handiagoa dago sare publikoan, eta aldea handiagoa da jangelako-beken kasuan, bereziki Araban. Ertanen arabera jangelako

Eskola-materialaren kasuan, bekadunen kopuruak bere horretan jarraitzen du, baina jantokiko bekadunen kopuruak behera egin du. Sareen arabera, ehuneko handiagoa dago sare publikoan, eta aldea handiagoa da jangelako-beken kasuan, bereziki Araban. Etapen arabera, jangelako bekadunen intzidentzia handiena Lehen Hezkuntzan dago, publikoan (% 34,5) pribatutik oso urrun (% 12,5).


1.6.2 Eskola-materialaren ikasle bekadunen kopurua lurraldeen eta sareen arabera



1.6.3 Jangelako ikasle bekadunen kopurua lurraldeen eta sareen arabera



3.1.1.2.2.n) grafikoa. 2018ko PISA . Etorkinen ehunekoa eta bertakoek nahiz etorkinek konpetentzia matematikoan izandako puntuazioa, autonomia-



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren INEEren 2018ko PISA txosteneko datuetatik abiatuta.

ELGEn nazioarteko batezbestekoan, ikasle etorkinek bertakoek baino 39 puntu gutxiago lortu dituzte matematikan, estatuko batezbestekoaren antzera. Euskadik dauka bi taldeen arteko alderik handiena, 77 puntukoa. ELGEko herrialde guztien eta Europako herrialde guztien artean, Koreak (150 puntu), Mexikok (94 puntu) eta Japoniak (79 puntu) bakarrik daukate Euskadik baino alde handiagoa bertako ikasleen eta ikasle etorkinen emaitzen artean.

PISAREN edizio guztietan, herrialde gehienetan, ikasle etorkinen errendimendua bertako ikasleena baino askoz txikiagoa izan da, eta frogatuta dago funtsean haien inguruabar sozioekonomikoekin duela zerikusia. Hala ere, herrialde batzuetan etorkinen proportzio handia dago, eta ikasle etorkinek hango ikasleen errendimendu berdina (Kanada) edo handiagoa (Australia) lortzen dute.

Azken urtean beste dokumentu batzuk argitaratu dira Euskadiko segregazioaren inguruan. Adibide batzuk

Silvn & Miracle txostena
(2021)



SILVN & MIRACLE
ESTADISTICA DE ALUMNOS PIRINEOS

EVOLUCIN
SOCIODEMOGRFICA
DEL **ALUMNADO EN
EUSKADI**

SEPTIEMBRE 2021

EVOLUCIÓN DEL PORCENTAJE DE ALUMNADO DE BAJO NIVEL DE ISEC EN CENTROS PÚBLICOS

% de alumnos que pertenecen a un nivel socioeconómico y cultural (ISEC)



Modelo A público



Modelo B público



Modelo D público




Gráfico: Silván & Miracle · Fuente: Consejo Escolar de Euskadi a partir de ISEI-IVEI

EVOLUCIÓN DEL PORCENTAJE DE ALUMNADO DE BAJO NIVEL DE ISEC EN CENTROS CONCERTADOS

% de alumnos que pertenecen a un nivel socioeconómico y cultural (ISEC)




Gráfico: Silván & Miracle · Fuente: Consejo Escolar de Euskadi a partir de ISEI-IVEI

ALUMNADO MATRICULADO EN ENSEÑANZA OBLIGATORIA DE EUSKADI NACIDO EN EL EXTRANJERO

Datos del conjunto de la CAPV




Gráfico: Silván & Miracle · Fuente: EUSTAT

MATRICULACION POR ORIGEN, TITULARIDAD DE CENTRO Y MODELO LINGÜÍSTICO




Nativo



Segunda generación



Primera generación



Datos PISA de 2018

Gráfico: Silván & Miracle - Fuente: OCDE micro datos PISA

esade

EsadeEcPol - Center
for Economic Policy



Save the Children

Diversidad y libertad

Reducir la segregación escolar respetando la capacidad de elección de centro

EsadeEcPol Insight #29 Abril 2021

AUTORES

Álvaro Ferrer

Especialista en
Equidad Educativa,
Save the Children

Lucas Gortazar

Senior Fellow de Educación
y Director de Investigación,
EsadeEcPol

Los autores agradecen su

RESUMEN EJECUTIVO

En los últimos años, la segregación escolar se ha convertido en un problema cada vez mayor para la calidad, equidad y libertad de educación en España. Definimos la segregación escolar como la concentración de un cierto tipo de alumnado en los mismos centros educativos. Una excesiva segregación (o dicho de otra manera, una baja diversidad) escolar puede convertirse en un problema para la igualdad de oportunidades y la eficiencia del sistema educativo, generando mayor fracaso y abandono en el alumnado y provocando mayores dificultades de gestión en los centros educativos de alta complejidad, desperdiciando así recursos y talento.

- “La segregación se ha convertido en un problema cada vez mayor para la calidad, equidad y libertad de educación en España”.
- “Los datos muestran que la segregación socioeconómica en España es muy alta en primaria (solo tras Turquía y Lituania) y se encuentra en la media de la OCDE en secundaria. La segregación por origen es semejante a la media de la OCDE en primaria y más baja en secundaria” (TIMMS LH 4 eta PISA DBH 4).
- “España está entre los países de la OCDE donde la diferencia de perfil socioeconómico entre el alumnado de escuelas públicas y privadas es mayor”.

Lucas Gortazar, *Berria* 2021-5-12

Nolakoa da egoera Hego Euskal Herrian?

Espainian, ikasleen egoera sozioekonomikoak sortutako segregazioa handiagoa da ikasleen jatorriak eragindakoa baino, baina Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egoera bestelakoa da: jatorri atzerritarreko ikasleak gehien bereizten dituzten lurraldeak dira. Ez dugu lekuan lekuko azterketa zehatzik egin, baina eztabaida presente dago, eta baita Nafarroan ere. Are, azken hori urrats bat aurrerago doa Kataluniarekin batera, eskolatze dekretu bat lantzen baitabil. EAEn, problematika ezaguna da, Zubiak Eraikiz mugimenduari esker, besteak beste, baina, halaber, araugintzan ez da ia ezer egin. Lan handia dago egiteko.

- La financiación de los centros, las cuotas de la escuela concertada, los baremos para matricularse en un centro, la matrícula viva... son algunos elementos centrales. Esto explica las grandes diferencias entre comunidades autónomas.
- “Reducir la segregación escolar es tarea políticamente compleja, pues toca de pleno los intereses de las familias, especialmente las de clase media. Una parte del debate y las políticas en torno al binomio segregación-libertad son conflictivas. Y por tanto ciertas medidas tienen ganadores y perdedores”

Dokumentu adostuak EAEn

Azken hamarkadan, EAEn, zenbait akordio/itun/agiri plazaratu dira segregazioaren inguruan, askotariko eragileek adostuta elkarrizketa prozesu baten ondorioz.

Dokumentu instituzionalak dira. Bertan printzipioak, diagnostikoak, neurriak... (garapen maila desberdinarekin testuaren arabera) jasotzen dira. Ez dira praktikara eraman desegregazioari dagokionez.

Jarraian adibide batzuk:

Gasteizko agiria Gazteizko Udalean plazaratu zen (2016-12). Testua askotariko eragileen artean adostu zen.

“HEZKUNTZA ETA ANIZTASUNA” LAN-MAHAIA

VITORIA-GASTEIZEN ESKOLA-SEGREGAZIOARI AURRE EGITEKO AZTERKETARAKO ETA PROPOSAMENEN AGIRIA

2016ko abenduaren 19an

Agiria ulertzeko zenbait gako

-2016ko apirilaren 22an, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ohiko Osoko Bilkuran, Vitoria-Gasteizen euskal eskola publikoaren alde egiteko Plataformaren izenean aurkeztutako mozioa onetsi zen aho batez. Eskola integratzaile eta hiri hezitzailearen aldeko mozioa izan zen.

-Onetsitako mozioan honakoa eskatzen zen: “Vitoria-Gasteizko Udaleko osoko bilkurak udal Gobernuari eskatzen dio erakundeen arteko mahai baten osaketa zuzendu dezala, hirian eskola-segregazioak sortzen duen arazoari aurre egiteko. [...]. Mahaiak kudeatzeko plan bat egingo du, non egoeraren azterketa eta neurri zehatzak jasoko diren, baita neurri horiek abian jartzeko eta horien efikazia ebaluatzeko egutegi zehatza ere”.

-Zenbait hezkuntza- eta gizarte-eragilek, zenbait adituk, talde politikoek izendatutako hainbat ordezkari, Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako batzuek eta udal zerbitzuetako zenbait pertsonak osatu zuten aipatutako mahaia.

Prozesuan eta testuaren idazketan parte hartu zuten hezkuntza- eta gizarte-eragileak:

- Euskal Eskola Publikoaren aldeko Manifestua, DENON ESKOLA, FAPACNE, SAREAN, BIHE, KRISTAU ESKOLA, ERKIDE, AL-INDIMAY Elkarte, KOLONBIA- EUSKADI Elkarte.
- Zenbait pertsona aditu gisa
- Udaleko talde politikoek hautatutako pertsonak
- Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzua eta Hezkuntza Zerbitzua

Sare desberdinetatik etorritako pertsonak prozesu osoan hartu zuten parte.

2016ko urriaren 27an, ez-ohiko saio bat egin zen Bartzelonako Universitat Autonomako soziologiako irakasle Xabier Bonalekin. Mahaian parte hartzen ez zuten beste pertsona eta eragile batzuekin topatzeko eta hausnartzeko aukera egon zen.

Proposatutako neurriak atalka

- Premiazko neurriak.
- Matrikula biziaren kudeaketa.
- Sarreraren kudeaketa.
- Hezkuntza-politika.
- Ikastetxe segregatuei laguntzeko neurriak.
- Desabantaila-egoeran dauden ikasleei eta familiei laguntzeko neurriak.

*Jarraian neurriak jasoko dira (itzulpenaren akats batzuk zuzendu dira).

1. Premiako neurriak

1.1. Eskolatze bulegoak sortzea. Eusko Jaurlaritzak kudeatu beharko ditu, eta, beharrezkoa balitz, udal ezarpena izango lukete. Funtzioak:

- a) Familiei informazio eta orientazio pertsonalizatua eskainiko diete ikastetxea aukeratzeko laguntzeko. Beharrezkotzat jotzen denean, baloratzeko eta prozesuan laguntzeko zenbait funtzio egin beharko dituzte.
- b) Ikasleen matrikulazioan parte hartuko dute, ikastetxeekin batera, bai ohiko epean bai epekan kanpo, aukera-berdintasuna sustatzeko eta ikasleak aukeratzeko prozesu ez-formalak eragozteko, esaterako, "barra libre" izenekoak, desagertu behar dela uste baitugu.
- c) Ikastetxeen eta sareen arteko oreka sustatuko dute, atzeritar jatorriko ikasleen matrikulazioari edota indize sozioekonomiko eta kultural txikiko ikasleen matrikulazioari dagokionez.
- d) Goiz antzemango dituzte berezko hezkuntza-premietara bideratzen diren ahulgarritasun-egoerak; ikastetxeekin koordinatuta egin beharreko lana da.

1.2.- Derrigorrezko hezkuntzaren doakotasuna bermatzen dituzten neurriak, bai ikastetxe publikoetan bai pribatu itunduetan, errenta txikiko familietatik datozen ikasleentzat izango dira. Horri esker, familia horiek ez dute ezer ordaindu beharko araututako derrigorrezko hezkuntzagatik.

1.3.- Jarduera osagarriak edo eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeagatiko kuoten kontrola bermatuko dituzten neurriak; gehienezko zenbatekoak ezarriko dira, baita errenta txikia duten familientzako laguntza ekonomikoak ere.

1.4.- Hezkuntzako Ikuskaritzak gauzatu beharreko kontrol neurriak, ikasleen artean egin daitezkeen hautaketak saihestearren, esaterako, jarduera osagarriekin edo eskolaz kanpoko jarduerekin lotura ez duten ordainketak egin behar izatea. Ordainketa horiei esker, praktikan, ikastetxeek familiak aukera ahal dituzte arrazoi ekonomikoak direla eta.

2. Matrikula biziaren kudeaketa

2.1.- Hezkuntza Administrazioak hiriko ikastetxe guztiak aintzat izan behar ditu (publikoak eta pribatu itunduak) heldu berri diren ikasleak matrikulatzeko prozesua planifikatzeko orduan; horrela bada, segregazio-tasa handiagoa duten ikastetxeen hobekuntza sustatuko da.

2.2.- Horrez gain, ondokoa ere beharrezkotzat jo da: Hezkuntza Administrazioak zenbait neurri hartu beharko ditu talde-gelaren egonkortasuna sustatzeko, eta ikasturtean zehar sartzen diren ikasle berriei dagokionez, gela bakoitzean gehienez sar daitezkeen ikasleen kopurua ezarri beharko du. Garrantzitsutzat jo da bi ikasleen kopurua ez gainditzea, 2009an Eusko Legebiltzarrean onetsitako Legez besteko Proposamenarekin bat etorritz, non heldu berri diren ikasleak eskolatzeko orduan gainditu ezin den gehienezko kopurua finkatzen den.

3.2.- Aintzat hartuta, onarpen-prozesuaren arabera, ikastetxe pribatu itunduetako bi urtekoen gela ez itunduetan dauden ikasleek ikastetxean jarraitu ahal dutela beste onarpen-prozesu bat egin gabe, beharrezkoa da zenbait neurri bideratzea familia errentak aipatutako geletan matrikulatzeko orduan izan dezakeen eragina arintzeko, familientzat gastu handiagoa izango baita. Abiatu ahal diren neurrien artean, dirulaguntzak aipa daitezke, errenta txikiko familiek bi urteko gela ez itunduetan eskolaratzeko aukera izan dezaten.

3.3.- Eusko Jaurlaritzaren ondoko araua betetzen dela kontrolatzeko neurriak: ikastetxe guztiek, publikoek eta pribatuek, gorde beharko dute ratioaren gaineratik %10, matrikula bizian sartzen diren ikasleak eskolatzeko. Hori dela eta, lekuen erreserbarekin jarraitu behar da aurre-inskripzio epetik haratago eta matrikulatzeko epetik haratago.

3.4.- Oso interesgarritzat jo da Vitoria-Gasteizko Udalak eta Hezkuntza Administrazioak euren arteko lankidetzan sakon dezaten Erroldako iruzurrak jazartzeko; horrek iruzurrak sortzen baititu ikasleak onartzeko prozesuan.

3.5.- Erljioari eta laikotasunari dagokionez familien artean dagoen aniztasuna aintzat hartuta, eta eskola-komunitatean zenbait erlijio daudenez, errealitate horrek eskola segregazioan duen inpaktua aztertu beharra dago, eta zenbait neurri finkatu beharko dira ikasle guztiek edozein ikastetxera joateko aukera izan dezaten.

3.6.- Garrantzitsutzat jo da ikasleak matrikulatzeko prozesuetan amaren, aitaren edo legezko tutoreen jaioterria jasotzea.

4. Hezkuntza-politika

4.1.- Beharrezkotzat jo da Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak ratioa zabaltzeko aukera ez ematea eta eskari handiagoa duten ikastetxeetan beste talde batzuk ez sortzea, eremu horretako beste ikastetxe batzuetan lekuak gelditzen baldin badira.

4.2.- Oso garrantzitsutzat jo da eskola-segregazio handiagoa duten ikastetxeetan ratioa murrizteko aukera aintzat har dezan, leku gutxiago izateko eta ikastetxe horietan kudeatu behar duten hezkuntza-konplexutasuna arintzeko.

4. Hezkuntza-politika

4.3.- Hezkuntza-ibilbideari dagokionez, beharrezkotzat jo da ez lotzea eskola-segregazio handiagoa duten haur eta lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta segregazioa ere pairatzen duten bigarren Hezkuntzako ikastetxeak; hots, ibilbideari dagokionez, beste aukera batzuk bilatzea; bestela, ikasleek ibilbidea ikastetxe segregatuetan egiteko aukera baino ez dute izango.

4.4.- Garrantzi berezia du Eusko Jaurlaritzak ondokoa azter dezala: ikasleak nola banatzen diren eskola-mapako eremu bakoitzeko ikastetxeetan. Ikasleen eskolaratzeari buruz benetako diagnostikoa lortzea da horren helburua, gerora begira zenbait ekintza inplementa ditzaten, bai Eusko Jaurlaritzak bai Vitoria-Gasteizko Udalak (azken horrek, Hezkuntza Administrazioaren laguntzarekin), ikastetxe guztietan eta kokatzen diren eremuetan kultura-artekotasuna sustatzeko.

5. Ikastetxe segregatuei laguntzeko neurriak

5.1.- Irakasleei dagokienez, ondokoa proposatu da: Hezkuntza Administrazioak eta ikastetxe pribatu itunduek zenbait neurri abian jartzea trebakuntza handiko irakasleak saritzeko eta erakartzeko hezkuntza-arrisku handiagoa duten ikasleak dituzten eskoletara. Halaber, garrantzi berezia du irakasleen egonkortasuna bermatzeak konplexutasun handiagoko ikastetxeetan.

5.2.- Horrez gain, beharrezkotzat jo da zenbait neurri abian jartzea Haur Eskoletan matrikulatzen diren indize sozioekonomiko eta kultural handiko familien eskaria erakartzeko, elkarrekin sar daitezten eskari txikiko ikastetxeetan.

5.3.- Oso interesgarritzat jo da hezkuntza-berrikuntzako proiektuak edota segregazio handiagoko ikastetxeak konpentsatzeko neurriak abian jar ditzaten, Eusko Jaurlaritzak zein Vitoria-Gasteizko Udalak (azken horrek Hezkuntza Administrazioaren laguntzarekin), ikasle autoktonoak eta indize sozioekonomiko eta kultural handiagoko ikasleak aipatutako ikastetxeetara erakartzeko.

5.5.- Orain dela hamarkada batetik baino gehiagotik Vitoria-Gasteizen badira ikasle etorkinen kontzentrazio handia duten zenbait ikastetxe; horietako bakoitzerako zenbait berezko neurriak aztertzeko eta inplementatzeko beharra proposatu da, eta egoera aldatzen ez bada, ikastetxea ixteko aukera ere jasoko lukete aipatutako neurriek.

5.6.- Beharrezkotzat jo da Hezkuntza Administrazioak ondokoa bultza dezala: A ereduko talde segregatuak D ereduko talde bihurtzea, batez ere haur eta lehen hezkuntzan.

5.7.- Ohiko epetik kanpo ikasle berriak sartzen badira, oso garrantzitsua litzateke Egoerari dagozkion irakasleak berehala izatea, sarrera horrek sortzen dituen premiei behar den moduan erantzun ahal izateko.

5.8.- Beharrezkotzat jo da Hezkuntza Administrazioak behar diren baliabideak eman diezaien, baita berezko baliabideak ere, eta oro har eskaintzen dituen bitartekoak baino gehiago ematea atzerritar jatorriko ikasle edo indize sozioekonomiko eta kultural txikiko ikasle kopuru esanguratsua eskolatzen duten ikastetxeei.

5.9.- Garrantzitsutzat jo da Vitoria-Gasteizko Udalak ondokoa bultza dezala: ezaugarri ezberdinak dituzten eskolen Guraso Elkarteen arteko topaketa, komunikazioa eta lankidetzak, elkarrekin zenbait jarduera susta ditzaten, esaterako, hitzaldiak, guraso eskolak, zenbait hezkuntza-zerbitzuren kudeaketa partekatua etab.

5.10.- Horrez gain, interesgarria litzateke Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat eskolaz kanpoko jarduera zonaldeka antolatzen udal sistema bat finka dezala, prezio publikoen truke eta eremuko ikastetxeetako ikasleentzat; sistemak ez du eraginik izango Guraso Elkarteek arratsaldean antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jardueretan.

5.11.- Amaitzeko, atal honi dagokionez, nabarmendu da garrantzitsua dela eskola segregazioko antzeko errealitate dituzten ikastetxeak ez fusionatzea.

6. Desabantailak dituzten ikasleei eta familiei laguntzeko neurriak:

6.1.- Garraiorako, liburuetarako, jantokirako eta jarduera osagarrietarako beken sistema nahikoa ezartzea garrantzitsua da. Horrez gain, garrantzitsutzat jo da laguntzak ikasturtearen hasieran ordaintzea, familiek ordainketa egin dezaten; horri esker, saihestuko dira ikastetxeen irizpideen arabera sortzen diren zenbait egoera, ordainketak atzeratzearen ondoriozkoak.

6.2.- Horrez gain, garrantzitsua da laguntzen sistema bat finkatzea errenta txikiko familietako ikasleek bermatuta izan dezaten eskolaz kanpoko jardueretan edo Ikastetxeak, Guraso Elkarteak edo Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera.

6.3.- Halaber, beharrezkoa da aipatzea Vitoria-Gasteizko Udalak, ikastetxeek eta Guraso Elkarteek familiei trebakuntza-eskaintza bat eskaini behar dietela, eta horren erreferentzia ikastetxea edo ikastetxearen ingurunea izango dela; zenbait neurri jarriko dira ahulgarritasun sozioekonomikoko egoeran dauden familiak horietan parte hartzeko aukera dutela bermatzeko.

6.4.- Etiket edo familiaren lanpostutik urrun dagoen ikastetxera joan behar duten ikasleen kasuan, konpentsatzeko zenbait neurri jarri behar direla abian ulertu da.

6.5.- Lehen zikloko haur hezkuntzari dagokionez, Haur Eskolek, udalekoek zein Haurreskolak Partzuergoek, zenbait neurri jarri behar dituzte abian ahulgarritasun sozioekonomikoko egoeran diren familietako txikiek eskolara doan joateko aukera izan dezaten.

